

# TRANSLANGUAGING HEZKUNTZA ELEANITZEAN. IKERKETA ETNOGRAFIKO BAT

**Tesiaren egilea:** Eider Saragueta Garrido

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak

**Tesi-zuzendaria:** Jasone Cenoz Iragui

**Tesiaren laburpena:**

Euskaldunen artean ohikoa da euskararen inguruan solasean aritzea. Baina bada azken urteetan, hiztunei ez ezik, erakundeei ere kezka sortu dien afera bat: euskararen erabileraren apaltzea. Nahiz eta jakite-mailak gora egin, erabilerak ez du neurri berean edo antzekoan gora egin, eta horrek, zalantzarik gabe, kezka sortzen du. Soka horri tiraka, horren inguruko ikerketa egiteko nahia sortu zen.

Hizkuntza gutxituen erabilera apaltzea Europako beste hizkuntza gutxitu batzuetan ere gertatu da. Horregatik, guretzat horien egoerari bertatik bertara jarraitzea mesedegarria izan daiteke, egoeraren azterketa osoa eginaz gurean bizi dugun errealitatearekin alderatzeko.

Globalizazioak eta norbanako zein taldeen mugimenduak identitate-osaketa berri eta desberdinak mahaigaineratu ditu. Lasan eta Rehner (2018) egileen ustez, identitatearen kontzeptua hizkuntzen irakaskuntzaren erdigunean kokatzen da. Hortaz, hizkuntzen irakaskuntza identitatearekin txirikordatzen den gaia izaki, hala hizkuntza gutxituak nola bigarren edo hirugarren hizkuntzen irakaskuntza identitatearen osaketaren parte dira.

Bestalde, norbanakoen artean sortzen den hartu-emanen, hainbat hizkuntza eta hizkuntza-praktika azter daitezke. Hori hizpidera ekarriz, eta hezkuntza eleaniztunean dauden aurrekariak kontuan hartuz, ikerketa honek ekarpen aipagarria egin nahi dio, egun, goraldian dagoen paradigmari, hain zuzen «Focus on Multilingualism» edo Ardatz Eleaniztunari (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014), bai eta «translanguaging» izenaz ezagutzen den fenomenoaren garapenari ere (Lewis, Jones eta Baker, 2012). Gure kasuan, gai horiek aipatzean, arreta euskarari eta tokian tokiko hizkuntza gutxituetan jartzea komeni da, jadanik hainbat ikertzailek egin duten bezala (Cenoz eta Gorter, 2017a; Jones, 2017; Leonet, Cenoz eta Gorter, 2017).

Ikerketa hau egiteko testuingurua Bizkaiko herri bateko D ereduko eskola publiko bat izan zen. Bertan, DREAM ikerketa-taldea esku-hartze zabal bat egiten ari zen *translanguaging*aren inguruan, eta abagune hori baliatuz, ikerlan hau egiteko beta

ireki zen. Sakoneko ikerketa egin zen eta ikertzaileak bi urtez jarraitu zuen talde baten bilakaera. Erabilitako metodologia kualitatiboa izan zen eta datuak gela barneko etnografia bidez jaso ziren.

Bildutako emaitza nagusiek erakusten dituzte ikasleek euskararen inguruan zituzten pertzepzio eta jarrerak, bai eta beren identitatea hizkuntzen inguruan nola ardazten zen ere. Azkenik, gela barnean ikusitako hizkuntza-erabilera ere aztertu da, hizkuntzen arteko jauzietan edo *translanguaging* praktiketan arreta berezia jarriz.

Ikerketaren ondorio nagusiek erakutsi dute, batetik, desoreka-egoera dagoela ikasleen hizkuntza-erabileraren eta pertzepzio zein jarreraren artean. Izan ere, ikasle gehienek euskara begiko izan arren, erabilera apala egiten zuten, eta gainera, egoera horretaz jakitun ziren. Bestetik, identitatearen gaia aztertzerakoan identitatearen ezaugarriak malguak direla azaleratu da, hainbat ikaslek beren identitateak zituen ertzak erakutsiz. Azkenik, gela barneko hizkuntza-erabileran ikusi zen ikasleak modu malguagoan erabiltzen zituztela hizkuntzak irakasleekin alderatuz. Era berean, esku-hartzearen bidez gela barnean hizkuntza-erabilera zabala egiteko aukera izan zuten ikasleek, era planifikatuan hizkuntzen arteko loturak sendotuz, betiere euskara ardatz.